

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko eta ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko 2016ko zerga borondatez ordaintzeko aldia

Nik, Eduardo Fernández de Pinedo Gonzalezek, Kuartangoko Udaleko (Araba) alkateak, honako hau

Jakinarazten dut: 2016ko urriaren 1etik azaroaren 30era arteko (biak barne) egun baliodunetan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hauei dagozkien 2016ko ordainagiriak:

- Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zerga.
- Ezaugarri berezietako ondasunen gaineko zerga.

Helbideratuta dauden ordainagiriak banku erakunde bidez kobratuko dira; helbideratuta ez dauden ordainagiriak, berriz, udal bulegoan ordaindu beharko dira.

Era berean, zergadunei jakinarazten zaie banketxe eta aurrezki kutxa konfederatuen bidez helbideratu ahal izango dutela ordainketa, Dirubilketari buruzko Araudian xedatutakoaren arabera.

Ordaintzeko adierazi den epea bukatutakoan, ordaindu ez dutenei premiamenduko beteazte bidez kobratuko zaizkie ordainagiriak, ehuneko 20ko errekaruarekin, halaxe xedatzen baitu lehentxeago aipatutako arautegiak 96. artikuluan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zuhatzu Kuartango, 2016ko irailaren 8a

Alkatea

EDUARDO FERNÁNDEZ DE PINEDO